

e|karrizketa

Mikel Arruti
LATZeko langilea

❖ Euskara plana zer moduzko esperientzia ari da izaten?

- Duela 6 bat hilabete hasi genuen euskara plana eta diagnosa egin ondoren inplementazioarekin hasi ginen. Ez da denbora gehiegi pasa baina dagoeneko aldaketa batzuk nabari dira eta horrek poza ematen du, balorazioa positiboa da.

❖ Zertan antzeman da euskara planaren eragina?

- Langileek euskara planean sartu garea jakin dutenean, bi hizkuntzetan mintzatzeko ohitura zuen jendeari, euskararekiko sentsibilitatea piztu zaio eta euskaraz soilik egitera pasa diren pertsona batzuk antzeman ditut. Bestalde, euskara planarekin ikusi da denon onerako dugun zerbait egin behar denean jendea gehiago inplikatzeko prest dagoela eta bere denbora librea enpresaren onurarako den zerbaitetan emateko gai ere badela.

❖ Planean sartu aurretik zuk, langile zaren aldetik, ikusten al zenuen euskara planaren beharrik?

- Bai, alde batetik Latzen euskararen presentzia ahozkoa bakarrik eta era informalean zen. Dokumentazioa eta idatzizko komunikazio guztia ia erabat gazteleraz jasotzen genuen, langilegoaren 3tik 2 baino gehiago euskalduna izanda ere; eta beste alde batetik, euskaldun zahar askoren arteko hartu-eman gazteleraz da. Jende asko euskaldun peto-petoa izanik gazteleraz komunikatzen da lankideekin. Euskara planarekin langile horiek bere artean



euskaraz egitea lortuko bagenu, oinarriko helburua behintzat lortuko genuke. Pena da hainbeste euskaldunen artean gaztelera hainbeste entzutea. Latzeko plantila nahiko gaztea da eta gure jenerazioko langile askok ikasketa guztiak euskaraz egiteko aukera izan dugu eta lan mundura salto egitean gaztelera hutsean funtzionatzen duen mundu batean sartu gara. Nere ustez gure jenerazioko jendeak euskara lan-munduan sartzeko ahalegina egin beharko genuke, eta gure eguneroko hizkuntza lanean ere erabili.

❖ Euskarak handitu al dezake langileen enpresarekiko inplikazioa eta atxikimendua?

- Hori esatea gehiegi esatea dela iruditzen zait, nahiz eta neurri batean eman daitekeen. Enpresa euskara plan batean sartzek ez du ekarriko langileak goizetik gauera lanean gehiago inplikatzeari, baina ona da langileek ikustea bere lanpostuari espres ez dagozkion beste era bateko lanak egitean enpresaren funtzionamenduan aldaketak sor daitezkeela. Azken finean, euskara planean sartzek eta jarritako helburuak lortzeko, satisfakzio bat ekartzen du, eta horrek kolektiboa indartzen du.

m|otzean

BURUNTZALDEKO ENPRESENTZAKO DIRU LAGUNTZAK
Eusko Jaurlaritzak erabaki du jada 2005eko euskara planetarako emango dituen diru laguntzen kopuruak

| Enpresa | 2005eko diru lag. |
|---|-------------------|
| Hauk dira Buruntzaldeko enpresek Eusko Jaurlaritzarengandik jasoko dituzten diru laguntzen kopuruak*: | |
| - Berriola..... | 2.978,25 € |
| - Latz..... | 4.804,02 € |
| - MSI..... | 18.518,74 € |
| - Orona..... | 10.567,27 € |
| - S.Izaguirre..... | 4.946,89 € |
| - Selak..... | 4.577,52 € |
| - V.Luzuriaga..... | 7.920,33 € |

* Buruntzaldeko udalengandik ere jasoko dute diru laguntzarik



Gaizka Garitano ere, lanean euskaraz berria

2005-11-17

Taldean hainbeste euskaldun egotea oso gauza ona dela esan duzu elkarrizketaren batean. Zergatik?
«Horretaz ziur nago. Esperientziak esaten dit baietz. Sentimendu berezia sortzen da, oso gustura egoten zara, zure hizkuntza hitz egiten duzu... Horri garrantzia handia ematen diot»

Z|er da...?

Erabilera Taldeak

Hizkuntza-ohiturak aldatzeko guneak dira. Etengabeko hobekuntzan oinarritutako talde naturalak dira, hau da, egunero lan-harremana duten euskaldunetako osatutakoak dira. Taldekako eta banakako konpromisoak hartuz eta beharrezko duten formazioa jasoz, taldekideen artean euskara gehiago erabiltzeko (ahoz eta idatziz) pausoak ematen dituzte.



Lana euskaraz!